48. zenbakia - 2006ko apirila

artzape

GETARIARRON TOPAGUNEA

HERRIKO TRIATLETAK

] GETARIA ZARAUTZ ARTEKO PASEALEKUA]

LITERATUR LEHIAKETAKO IRABAZLEAK]

Mostradore atzean

Maria Jesus Aizpuru

SOKOA
Giro alaia eta jatorra!
Elkano 17. Tel.: 943 140 952

OSTOLAZA
EDARITEGIA
kaxuelitak eta
plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.:943 140 214

Saiazgetaria
HOTELA
BILERA GELA DAUKAGU
Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa
T
943 140 143
F
943 140 345
E
info@saiazgetaria.com
W
www.saiazgetaria.com

SAN PRUDENCIO
JATETXEA
JATETXEA - ERRETEGIA
20808 GETARIA
(ERREPIDETIK 600 METRORA)
IKUSPEGI BIKAINAK
943 14 06 27 - 943 14 04 11

OSTOLAZA
ANAIAK
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110

kutxa

ITSAS
MENDI
gutiziak
Kaia z/g
Tel.: 943 140 993
Mugikorra: 649 947 855
20808 GETARIA

POLITENA
TABERNA JATETXEA
Pintxo bereziak • Bokata labekatu berriak • Berezitasuna menutan
Kale Nagusia, 9-11 • Tel. 943 140 113 • 20808 GETARIA

ENBATA
Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA 943140945

ELKANO
Jatetxea
Herrerieta, 2
Telefonoak: 943 14 00 24
943 14 06 14
20808 GETARIA

BABEXA
Getariako Dendari Elkartea

ERROTA
OPIL - OKINDEGIA
Elkano, 7
Tel.: 943 140 017

KAIA JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

INDAUX
Tel.: (+34) 943 899 100 Fax:(+34) 943 899 101 indaux@indaux.com
INDUSTRI AUXILIARRAK (INDAUX), S.A. SAN PRUDENTZIO, S/N. 20808 GETARIA
APDO. 132. E-20800 ZARAUTZ (GIPUZKOA) www.indaux.com

Badatoz Euskal Jaiak!

artzape

48. zenbakia

2006ko apirila

]5/Inkesta: **Langileen Eguna ospatzen al duzu?**

]6-7/Getarian zer berri?

Getaria Zarautz arteko pasealekua

Literatur Lehiaketako irabazleak

]8-11/Elkarrizketa:

Maria Jesus Aizpuru

]14 -15/Erreportajea:

Herriko triatletak

]18/Alergiak: **Miren Fuldain eta Amaia Ubigain**

]19/Petrilaren harritarteetatik

]20/Katrapunako petriletik: **Gertrudis Luloaga**

]23/Akordatzen? **Mokau bat jaten**

[argitaratzailea] Gure Txeru Elkartea [koordinazioa] Izaskun Larrañaga eta Monika Uzkiza [lan taldea] Ane Azkue, Jon Illarramendi, Josune Urresti, Harkaitz Etxaniz, Kepa Iribar, Zigor Saizar, Amets Etxabe, Irantzu Ezenarro [kolaboratzaileak] Aingeru Aramendi, Ion Arakistain, Amaia Ubigain eta Miren Fuldain [bertsoa] Itziar Laxalde eta Laida Belarbide
[maketazio berria] Vicente Dávila [argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape
[inprimaketa] Gertu [tirada] 1.075 ale [lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

artzape
Eskualtxeta kulturgunea
Krixketaneko Iturrigaina

Tel: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

Gure Txeru Elkartea

Getariako Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

] gutunak

Getariarren balentria

Uda hurbiltzen ari da eta milaka lagun Brigadak, bidaia arruntak, espedizioak... antolatzen hasiak izango dira, dagoeneko. Ziur tartean ere, getariarren bat izango dela.

Milaka horietatik, gutxi batzuek aio esan eta kristoren bidaiak egin dituztenak bakarrik, izan ohi dira inguru hauetako agintariek baloratu eta beren esperientzien berri ematera ekartzen dituztenak. Milaka euro irabazten duten izen handiko pertsonaiak goraipatu eta bultzatu ohi dituzte gure agintariek. Udalaren izenean izena eta publizitatea lau haizeetara zabaldu eta ahal izanez gero gainera, herritarren aurrean, ikuskizunaren egunean ongietorria eta eskerrak ematea izan ohi da beren borondate onaren adierazgarri, "Agintari txit goren" bezala, eta herritar guztien izenean, beraien balentriari begirunea erakutsiz.

Zoritxarrez hori da gehienetan gure agintariek daramaten politika: bidaiak ordaintzeko diru laguntza handiak jasotzen dituzten izen handiko pertsonaiak ekartzea beren esperientziak ezagutu ditzagun. Horretarako dirua ordaindu behar bazaie ere, ez dago arazorik, ordaindu eta kito! Getarian bertan, horren adibide andana izan dugu azken urteotan: Oiartzabal eta Beloki mendizaleak, Gasteizko Txirrindularia...

Aitortu beharra dut gehienak esperientzia oso interesgarri eta aberatsak izan zirela. Baina herrian bertan ere, izen eta diru laguntzarik gabeko hainbat esperientzia polit, latz eta ikusgarriak izan dituzten herritarrak ere baditugu. Eta gaur-gaurkoz, "Kultura" Batzordeburuak getariar hauek ahaztu eta gutxiesten ditu. Penagarria benetan, adjektibo gehiago ez jartzearren.

Zorionez ordea, "Kultura" Batzordeburu honen handikeriatik haratago, herrian getariar hauen esperientzia ezagutze aldera beren emankizunak antolatu dituzten elkarte, norbanako eta tabernak izan dira. Horiei esker getariarrok, guden erdian egondako, Amerikatako tontorrik garaiena igotako, pareta handiak eskalatutako... herritarren jarduna zuzenean ezagutzeko aukera izan dugu.

Askok, beste aukerarik ez dutelako, aio esan behar izan diete Salbatoreei, aio lagunei eta herritarren artean sortzen den giroari. Niri dagokidanez ere, aio esan behar izan diot guzti horri; adiorik ez, ordea, jaietan bere proposamenak aurrera atera eta beste guztion partehartzea horretara mugatu behar dela (06-02-20) pentsatzen duenari, hau da, "Kultura" Batzordeburuari.

Esperientziak erakutsi dit "Kultura" batzordeburuak bere probetxurako den guztia erabiltzen badakiela. Ea hemen idatzitakoak ere, zerbaitetarako balio dion eta herritarren bizipenak gehiago baloratu eta bultzatzen hasten den.

Hor duzu bada, erabilia izateko proposamen bat. Ah!, eta getariarren mesederako, ez zaitzala harrokeriak jan. Aio!

Haritz Alberdi

Argazki bat dela eta...

Aldizkari honen otsaileko alean argazki bat azaldu zen, bertan buru gainean upelak zeramazkitan hiru pertsona ikusten ziren. Argazkiko azalpenean pertsona horiek norbaitek ezagutzen ote zituen galdetzen zen eta informazioa eskatzen.

Martxoko alean nik emandako informazioaren parte bat irakurri ahal izan dut, baina ez zen zuzena. Hala ere, gustatuko litzaidake gai hau gehiago sakontzea helburu batekin, gazteek ezagutu dezaten nola lantzen zen Getarian salazoe industria orain dela 60 urte baino gehiago.

Aipatu behar da argazkiko upel hauek "barilla sicilianoak" izenez ezagutzen zirela jatorriz Siziliakoak zirelako. Upel hauek hemen eta kostako beste puntu batzuetan eraikitzen ziren eskuz.

"Siciliano" hauek kanpaina garaian antxoa salazoian enpaketatzeko erabiltzen ziren, pagoaren egurrez eginak zeuden eta "uztai", "alla" eta "duelak" behar izaten zituzten. Dueletarako egurra Nafarroatik ekartzen zen eta hemengo upelgileek "Barrilleroak" forma eta neurriak ematen zizkieten. Honez gain, bidoe batzuen barruan suakin berotzen ziren kanpo aldetik, erre ez zitezen, eta honetan errazago lantzeko eta beharrezko kurbatura lortzeko. Alla arbusto bat luzean moztu eta fibra poroso bat bezala erabiltzen zen eta duelen artean jartzen zen bururik gabeko iltze txikien bidez josita. Uztaia gastainondoaren azalaren tirekin egiten zen. Hau egun batzuetan eta fardoetan Molla Zaharreko, "Antxirrian", uretan uzten zen malgutasuna har zezan eta uztai bezala erabili zen.

Antxoa enpakatu eta behar zituen prentsa eta salmuera eman ondoren, oso ondo itxitako tapak jartzen zitzaizkien eta Italiara exportatzen ziren. Barrilaren pisu osoa 80 eta 85 kilo artekoa izen zen. Hemengo upelgileek edo barrilleroak erabiltzen zuen makinariari dagokionez, esan behar da oso rudimentarioa zela. Honek kurpilik gabeko bizikleta estatiko baten itxura zeukan eta pedalekin egurrak eusten ziren duelak tinko gera zitezen. Beste tresnak: zerra, trintxa, mailua, konpasa eta hasia, bi mangoko labana zorrotz bat.

Bertako "barrillero" ezagunenen artean, Balentin Andreano, Jose Bentura Aranguren eta bere seme Tomas eta Jesus, Lukas Alegria, Benito Olaskoaga eta Jose Lazkano eta honen seme Eusebio gogoratzen ditut.

Argazkiko pertsonei buruz esan behar da Orlando fabrikakoak direla. Hauek Sahatsagako bodegan almazenatzen zituzten "barrillak" eta Herrerietako lantegira eramaten zituzten antxoa enpaketatzeko.

Honez gain, ziur nago argazkiaren ezkerraldean dagoena gizon bat dela, honek bi "barrilla" baitaramazki, eta ez bat emakumeek daramaten bezala; gainera, txapela dauka buruan eta tatuajea besoan. Gizon hau Leonardo Oliveri dela esatera ausartuko nintzateke eta, lagunartean eztabaidatzen jardun dugu eta esan didate gizon honen ondoan dauden emakumeak Hipolita Urresti eta Marta Alzaga direla.

Jon Esnal Alegria

Gauzak argituz

Tentuz ibili! zioen Haritz Alberdik aurreko aldizkarian, Getariako DV-ri buruz argitik eta egitik ezer ez zuten baieztapenak eginez. Horren aurrean Getariako DVko ordezkaritzak zera argitu nahi du:

1. Getariako DVk beti argitaratu du heldu zaion informazio guztia; ez du sekula herriko talde politiko, zein elkarteetatik jasotako prentsa-ohar bat bera

Zure gutuna Artzapen argitaratzea nahi baduzu, Txeruko postontzian utzi, Eskualtxetara ekarri edo artzape@topagunea.com helbidera bidali zure izen-abizenekin. Gutunak gehienez **200** hitz izan beharko ditu eta luzeagoak direnak mozteko eskubidea izango du Artzapek. Ez dugu testu iraingarririk onartuko eta Artzapek ez du bere gain hartuko argitaratzen diren iritzien gaineko erantzukizunik.

ere argitaratu gabe utzi.

2. Ez hori bakarrik: informazioa zuzenean bidali ez zaigunean ere atera izan dugu beste bide batzuetatik jasota. Hori da azken hilabeteotan Iparrako informazioarekin gertatutakoa; izan ere, hilabeteak dira Iparrak ez diola Getariako DVri informaziorik bidaltzen eta beste komunikabideei bai. Balio ez duena da komunikabide bati informazioa bidaltzeari utzi, eta gero komunikabide horrek informazio hori ateratzen ez duela salatzea.

3. Etorkizunean ere DVren jokabidea bera izango da: bidaltzen zaigun informazio guztiari emango diogu tartea. Beraz, hemendik gonbita luzatu nahi diegu herriko talde eta elkarte guztiei DVko Getariako ordezkaritzara gure orrietan ateratzea nahi duten informazioa helarazi dezaten, baita Iparra plataformari ere.

Hau izan da eta izango da gure jokabidea. Honen kontrako baieztapen guztiak ez dira egiazkoak eta argibide gehiago nahi dituenak eskuragarri ditu hemerotekak.

Irantzu Ezenarro
DV Getaria

Artzape aldizkaria
ederra eskutan,
udaletxea ez da
ohartzen askotan,
horrelako ekintzak
behar dira herrian
diru laguntzak dira
beharrezko benetan.

Laxalde eta Laida

Maiatzak 1, Langileen Eguna ospatzen al duzu? Zerbait berezia egiten duzu?

Ez dut ezer berezirik egiten. Denda itxita izaten dugu, baina ez dugu modu berezian ospatzen.

Ana Mari Iribar

Ez dut ospatzen, eta eguna deskantzatzeko aprobetxatzen dut.

Iker Alberdi "Exekiel"

Ez det ezer berezia egiten egun horretan. Lana egitea tokatuko zait egun horretan.

Mertxe Ancizar

Normalean ez dut ospatzen, eta aurten lan egitea tokatuko zait.

Ibon Herrero

Getariako Txakolina
DENOMINACION DE ORIGEN
Aldamar Parkea, 4
TEl: 943 14 03 23 Faxa: 943 89 60 30
20808 GETARIA
www.getaraiakotxakolina.com/Info@getaraikotxakolina.com
AGERRE ARREGI GAINTZA TALAI-BERRI
AIZPURUA BASA-LORE GAÑETA TXOMIN ETXANIZ
AKARREGI-TXIKI EIZAGUIRRE REZABAL ULACIA
AMEZTOI ETXETXO SANTARBA ZUDUGARAI

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrilan espezialitatea
kaia, 1
20808 GETARIA Tel.: 943 14 04 12

Pasealekuaren hirugarren fasea egiten hasiko dira laster

Getaria eta Zarautz arteko pasealekuaren hirugarren zatia 2007ko udarako egingo dute

Dagoeneko martxan da Getaria eta Zarautz arteko itsas pasealekua egingo duen enpresaren aukeraketa. Getaria eta Zarautz artean dagoen Ubiriko badia inguratuko du itsas pasealekuaren azken zatiak, eta herri batetik bestera, pasealekuan barrena, oinez joatea ahalbidetuko du.

Pasealeku hau egin nahi duten enpresek apirilaren 21a baino lehen lortu behar zituzten agiriak eta 24a baino lehen, beren proposamenak aurkeztu behar zituzten; maiatzaren 18an jakingo da zein enpresak egingo dituen pasealekuari dagozkion lanak.

Azken zati honek 1.350 metro ditu gutxi gorabehera eta ibilbideak, bataz beste, 2,79 metroko zabalera izango du. Hirugarren fase honen lanek ia sei milioi euroko gastua suposatuko dute.

Getaria eta Zarautz arteko itsas pasealekuren lanek zortzi urte iraun dute. 1999an Zarauztik abiatu eta 2000ko maiatzean bigarren tuneleraino iritsi ziren. Bigarren zatia, berriz, Getariatik hasi ziren egiten eta 2005eko uztailean inauguratu zuten. Bi zati hauek Construcciones Moyuak egin zituen. Azken zati hau 2007ko udarako amaituko dutela aurreikusten dute.

Hirugarren faseak Getaria eta Zarautz lotuko ditu oinezkoentzat.

Aukeratu dira V. Literatur Lehiaketako irabazleak

V. Literatur Lehiaketako sari banaketak egin ziren apirilaren 26an. Hauek izan dira aurtengo irabazleak: Ipuinetan: 1. maialan, Libe Goenaga; 2.goan, Jokin Ezenarro; 3.ean, Xabier Irigoien; 4. mailan, Jon Urresti; 5.gokoen artean, Antton Ibarbia; 6.ean, Julen Goenaga; 12 eta 14 urteko gaztetxoen artean Ane Larrañaga; 16 urtetik gorakoetan Uxue Etxaniz.

Olerkietan, berriz: 2.go mailan, Mireia Azpeitia. 4, mailan, Ander Lazkano eta 5. goan, Aitor Jimenez. 6. mailako bertsoen artean Axel Campos izan da garailea eta 12-14 urteko gaztetxoen artean Ainhoa Camioren poemak irabazi du. 16. urtetik gorakoen artean Iñigo Olabarri izan da garaile.

Aurtengoan piropo lehiaketa ere izan da, zehazki bi kategoriatan; 12-16 urte bitartekoetan Mikel Larrañagak eta Aitor Gomezek irabazi dute, eta 16 urtetik gorakoan Monika Uzkizak.

Sukaldaritza ikasteko aukera herrian bertan

Udalak sukaldaritzari buruzko bi ikastaro antolatu ditu: lehenegoa, *Sukaldaritzaren Hastapenak* bukatzear da eta bigarrena, berriz, *Sukaldaritza Txikia: pintxoak eta kaxuelita*k.

Lehenengo ikastaroa hamabost lagunek egin dute. Ikastaroa astearte eta ostegunetan izaten da arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara Arrantzale Zaharren Elkartean.

Nesken Pala Txapelketa antolatu du kiroldegiak

Maiatzaren 5ean hasiera emango zaio herriko nahiz beste herrietako nesken Pala Txapelketari. Txapelketan 11 bikotek eman dute izena eta herriko eta Zarauzko zenbait bikote lehiatuko dira.

Partidak ostiral arratsaldetan izango dira, 19:00etatik 22:00 etara eta ostiralero hiru partida ikusteko aukera izango dugu herriko frontoira hurbiltzen garen guztiok. Eguraldi txarra izanez gero, partidak kiroldegian jokatuko dira Bikote guztien artean bi talde egin dira: batean sei bikote egongo dira eta bestean bost. Bi talde horietatik sailkatuko dira final handia jokatuko duten bikoteak.

Aste Santutan herria turistas beterik egon da

Aurtengo Aste Santuak beste urteetakoak ez bezalakoak izan dira: herriko kaleak inoiz baino jende gehiagoz beteta egon dira, eta herriko taberna, jatetxeek eta ostatuek izugarrizko lana izan dute.

Turismo bulegoak adierazi duenez, bertara hurbildu diren turisten gehiengoa Kataluniatik etorri dira, zehazki 431 pertsonatik 224 lagun; eta Madrildik eta Euskal Herritik gerturatutakoak ere izan dira gure artean.

Apirilaren 8an euskal presoen aldeko martxa egin zen

Pausoz Pauso euskal presoen aldeko martxa egin zen Zarauztik Azkoitira

Apirilaren 8an euskal presoen aldeko martxa egin zen "Eskubide guztien jabe, Euskal Presoak Euskal Herrira" lelopean.

Martxa Zarautzen hasi eta Azkoitian amaitu zen eta Zarautz, Getaria, Zumaia, Zestoa, Azpeitia eta Azkoitia zeharkatu zituen

Herrira goizeko 10:45ean etorriko zela aurreikusia zegoen baina, ordu erdiko atzerapenarekin iritsi zen .

Hona iritsi zenean, Kale Nagusian behera jaitsi eta Elkano kaletik gora igo ziren martxan parte hartu zuten herritarrak eta Zarauztik zetozenak. Ekimenarekin jarraitzeko Zestoan herri bazkaria egin zuten eta horren ostean martxak Azkoitirantz jarraitu zuen bertan amaiera emateko.

Oihane Gastesik gerriko beltza lortu du judon

Martxoaren 25ean, Errenteriako kiroldegian gainditutako azterketaren ondorioz, Oihane Gastesik, getariako 20 urteko judokak, gerriko beltza lortu zuen. Lau urterekin hasi zen Oihane judoa praktikatzen, eta 14 urte behar izan izan ditu gerriko beltza lortzeko.

Gerriko beltza lortzeko bi bide zituen Oihanek: bata, lehiaketa eta, bestea, teknikoa. Berak teknikoa aukeratu zuen eta bi froga gainditu behar izan zituen. Lehenik eta behin, beste neska baten aurka borrokatu eta irabazi egin zuen; horregatik hainbat puntu eman zizkioten. Hori gainditu ondoren, Nage No Kata ariketan trebatzen jardu zuen eta ariketa defendatu ostean, epaimahiak gerriko beltza eman zion.

Gerriko beltza lortzeko buru-belarri aritu da eta orain lehiaketara itzuliko da. Datorren denboraldian Espainiko Txapelketan izatea du helburu.



Eskolako Agenda 21

Garapen Jasangarrirako Euskal Estrategia (2002-2020), ingurumen-gaiei buruzko Europar Batasunaren VI. Programa eta Nazio Batuek 2005-2015 aldia Garapen jasangarrirako hezkuntzaren hamarkadatzat hartzea direla-eta, administrazioei, hezkuntza-elkarteari eta herritarrei gomendatu eta eskatu egiten zaie garapen iraunkorra lortzeko itunak egitea eta erantzukizuna hartzea.

Hori aintzat hartuta apirilaren 4ean, Udal Batzar Aretoan Udalak eta Iturzaeta Herri Eskolak "Eskola-Agenda 21 betetzeko Konpromiso-Akta" dokumentua izenpetu zuten, aurretik Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailek ere onartuta dutena. Dokumentu honetan hartzen diren konpromisoak hauek dira, besteak beste:

- Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailak aholkularitza didaktikoa ziurtatuko, du eta diru-laguntzak eskainiko ditu ikastetxeentzako urteroko deialdien bitartez eta, Udalekin edo mankomunitateekin sinatu beharreko hitzarmenen bidez.

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza lehentasunezko programatzat tratatzea bermatuko du, irakasleen laneko esparrua eta ordutegia Eskola Agenda 21 programaren koordinazio- eta berrikuntza-eskakizunetara egokitzeko bidea emango du.

- Udalak Tokiko Agenda 21 programaren zatitzat hartuko du Eskola Agenda 21. Eskolako partaidetza-foro bat ezarri eta sustatuko dute, hiri-ingurumena aztertzeko eta ikastetxeen proposamenak jasotzeko. Proposamenei erantzun eta ikastetxeei lagunduko die.

- Ikastetxeek Eskola Agenda 21 programaren proiektua lantzeko bere filosofia eta metodologiari jarraituz abiarazteko konpromisoa hartuko du. Ikastetxeko ingurumen-batzordeak eratu eta proiektuaren arduradunak izendatuko dituzte. Garapen-prozesua bultzatu eta lortutako emaitzak ebaluatuko dituzte, urteko emaitzak eskola- eta udal-elkarteari jakinaraziko zaizkie ondoren.

Maria Jesus Aizpuru “Xixili”:

“Igandeetan ere dendak irekiak izaten ziren, ez genuen jai egunik izaten ”

Bizitza osoa Xixili dendako mostradore atzean igaro du Maria Jesusek. Herrian, batez ere haurren eta gazteon artean Xixili izenez ezagutzen dugu, baina izen hori bere amarena zela argitu digu, nahiz eta ohore handia izan bere amaren izenez ezagutzeak. Urte horietan guztietan izandako gora-beherez berriketan jardun dugu Maria Jesusekin.

Maria Jesusen amak urte askotan egin zuen lan dendan.

"Konfidantza handia genuen bezeroekin"

Zuen denda nork ireki zuen eta noiz?

Denda 1944. urte inguruan ireki zuten nire gurasoek. Lehenengo, lokala bitan banatuta zegoen: alde batean, gure aitaren bizartegia zegon eta, beste aldean, gure amaren janari denda txikia. Urteak aurrera zihoazen heinean, bi lokalak batu eta janari denda handiago bat sortu genuen.

Zer saltzen zenuten?

Hasieran, janari denda zen, eta, denborarekin, izozkiak saltzen hasi ginen. Garai hartan, herrian ez zen izozkirik saltzen eta fruta ekartzen zigun saltzaile batek izozkien ideia eman zigun. Gizon hark erakutsi zigun izozkien krema nola egiten zen. Izozkiak egiteko izotza Zarauztik ekartzen genuen eta esnea herriko zenbait baserritatik: Eitzaga, Golindo eta Akerregi Handi baserrietatik, besteak beste. Limonada ere egiten genuen; herriko bezeroek "gauza freskoa" deitzen zioten; izan ere, artean ez genekien nola izena zuen. Urte batzuk pasa ziren, eta, janarien negozioa alde batera utzi ondoren, nire senarrari jolas-leku (recreativo) horietako bat jartzea otu zitzaion, eta hala egin genuen. Hiru urteren buruan, ordea, itxi egin genuen, izugarrizko iskanbilak sortzen ziren eta. Jolastokia kendu ostean, jostailuak, izozkiak eta gozokiak saltzen hasi ginen. Poliki-poliki, txakolina indarra hartuz joan zen, eta herriko edaria saltzen hasteko erabakia hartu genuen. Dendaren azken urteetan, berriz, gozoki, izozki eta txakolinaz gain, Getariako produktuak ere salmentan jarri genituen: postalak, kamisetak...

Zu noiz hasi zinen dendan lanean?

Ni zortzi urterekin hasi nintzen dendan. Aulki txiki bat izaten nuen oinen azpian salmahaira iristeko. Bizi osoan bertan jardun dut lanean, amaren alboan. Etxeko lanak ere egiten nituen; baina, horrez gain, ez dut beste inon lanik egin. Eskola-garaian, atsedenaldietan, dendara joaten nintzen, eta, amak egitekorik izanez gero, haren postuan geratzen nintzen. Batzuetan, atsedenaldia amaitu eta ama oraindik itzultzeke egoten zen; horrelakoetan, hantxe geratzen nintzen, hura etorri arte.

Lan egiteko lehengo modua eta oraingoa asko aldatu al da?

Izugarri aldatu da. Lehen, ia janari guztia solte saltzen genuen; guri zaku handietan ekartzen ziguten, eta guk zaku txikiagoetan banatu behar izaten genuen: librako edota libra erdiko zakuetan. Izan ere, errazionamendu garaiak ziren, eta, ondorioz, horrela lan egin behar izaten genuen. Denden ordutegiei dagokionez ere asko aldatu dira gauzak: lehen, goizeko zortzietan irekitzen ziren dendak eta gaueko hamarrak aldera ixten ziren, lotara joateko garaian. Igandeetan ere dendak irekita izaten ziren, ez genuen jai egunik izaten. Garai hartako denda askok sukalde txiki bat izaten zuten atzealdean, eta guk bertan bazkaltzen eta afaltzen genuen. Bazkaltzen geundela ere, jendea etortzen zen, behar zuena erostera. Igandeetan, ohitura handia zegoen sopa eta garbantzuak jateko, eta, jendeak egunean egunekoa erosten zuenez, larunbatetan garbantzuak beratzen ipintzen genituen; hala, igande-rako prest izaten genituen. Ordaintzeko modua ere asko aldatu da: garai gogorrak ziren eta ez zen orain bezala diru asko mugitzen. Momentuan ordaintzerik ez zuenari ez zitzaion ezer gertatzen, guk ongi baikenekien bere senarrak partila egin eta dirua etxera ekarri bezain laster etorriko zitzaigula zorra ordaintzera.

Xixili al zen dendaren benetako izena?

Bai, beti izan du izen hori. Jendeak "Xixilineko denda" deitzen zion hasieran, eta, urteak pasa ahala, Xixili izenarekin geratu da. Izen hori nire amarengandik zetorkion dendari.

Zein ziren dendan lan egitearen alde onak eta txarrak?

Alde ona jendearekin izandako harreman ona izan da. Konfidantza handia genuen bezeroekin. Elkarri gure arazo eta kontuak kontatzen genizkion eta laguntasun handia zegoen. Gure amak esaten zuen dendan kontatzen zizkiguten arazo eta txutxumutxuak ez zirela dendatik atera behar, dendan hitz egindakoa bertan geratu behar zela. Nire ustez, amak emandako aholku on hari esker, ez genuen izan arazorik bezeroekin; horregatik izan genuen hain harreman ona. Dena den, alde txarrak ere bazituen dendan lan egiteak: lan asko egin behar izaten genuen. Gaur egun ia guztia zorrotan etortzen da baina lehen ez; lehen, ia guztia guk bildu behar izaten genuen eta horrek izugarrizko lana ematen zuen.

“Xixilineko izozkiek arrakasta handia izan dute beti”

Zein zen gehien saltzen zenuten produktua? Eta urteak pasa ahala, produktu hori aldatu al zen?
Urte horietan guztietan, gure “produktu izarra” ez zen aldatu; izozkia zen produktu garrantzitsu hori. Hasiera batean, jakiek garrantzi handia zutela esan dezaket; baina, gerora, izozkiek hartu zuten indarra. Xixilineko izozkiek arrakasta handia izan dute beti.

Zeintzuk ziren zuen bezero nagusiak: herritarrak edo kanpotarrak?
Udan, udatiar asko etortzen zen gurera, eta txaletetara ere zerbitzatzen genuen; kanpoko bezero asko izaten genituen udan. Urteko gainontzeko hilabeteetan, berriz, herriko jendea zen nagusi. Barkuetara ere zerbitzatzen genuen. Igande arratsaldeetan, herriko plazan gramofonoa jartzen zuten eta denda plazatik gertu zegoenez jende asko etortzen zen gozokiak erostera. Udako gauetan, berriz, komedianteak etortzen ziren eta beraien ikuskizunak eskaintzen zituzten. Ikuskizunaren erdian, atsedenaldia egiten zuten, eta, une horretan, jende asko dendara etortzen zen, izozkiak erostera. Komedianteak ere etortzen ziren gurera, ikusleen artean zozketatzen zituzten anis eta cognac botilak erostera.

San Prudentzioko jaietan ere erroskilak saltzen zenituzten, ezta?
Bai, San Prudentziotan erroskilak saltzera joaten ginen. Kaxa handi batzuetan erroskilak sartu, eta auzo horretara joaten ginen; kaxa haiek erroskilek baino pisu handiagoa zuten. Orduan autorik ez genuenez, astoan eraman behar izaten genituen; Krixketaneko asto gainean eramaten genituen erroskilak.

Orain dela zenbat urte itxi zenuten denda?
Denda orain sei urte, 2000. urtean, utzi nuen. Ezin nuen egun osoa dendan egon; goizean irekitzen nuen baina hezurretako mina jartzen zitzaidan, eserita egon behar izaten nuen. 62 urte nituela ixtea erabaki nuen. Seme-alabek ere laguntzen zidaten dendan baina, bakoitzak bere lana zuen eta ezin ziren dendaren kargu egin; asteburuetan asko laguntzen zidaten, baina astean zehar bakoitzak bere egin beharrak zituen. Horregatik erabaki bat hartzeko ordua iritsi zitzaidan. Nire bizitza osoa dendan pasa ondoren, uzteko garaia iritsi zitzaidan.

Mota eta gustu guztietako jakiak saltzen ziren Xixili dendan.

Eta urte hauetan guztietan, pertsonaia famaturik pasa al da zuen dendatik?

Bai. Donostiako Zinema Jaialdia zen eta Getariara Peter Finch etorri zen. Gizon hura oso diskretua zen. Zabalakora etorri zen egun batzuk pasatzera; baina, han lekurik ez eta Pilar Aranbururen etxera joan zen lo egitera. San Roke kaleko jaiak ziren, eta gizon hura gurekin ibili zen dantzan. Egun batzuk geroago El Mundo aldizkarian atera zen berria. Maximo Valverde ere etorri izan zen. inguruko herriak ezagutzera.

Zure ustez, zer izan da Xixili denda getariarrontzat?

Herrian, nahiko famatua izan da eta getariar guztiok ezagutu duzue Xixili denda. Gu oso alaiak eta oso irekiak ginen, eta horrek asko lagundu du bezeroekin izandako harreman onean. Gure aitak ere asko laguntzen zuen: jende asko zegoenean eta bezeroek itxaron beharra izaten zutenean, gure aitak bezeroak entretenitzen zituen, anekdotak eta istorioak kontatuz.

Eta guri kontatzeko moduko anekdotarik ba al daukazu?

Baserritarrik eliza etortzen zirenean, marmitak guri uzten zizkiguten eta, bitartean, etxerako erosi nahi zutena eskatzen ziguten. Behin, eskaera egin ziguten eta dena prestatu genuen. Aita eskaera astoan kargatzera joan zen, baina ez zekien zein zen eskaera egin zuenaren astoa; beraz, astoei eurei galdetu zien: "Hi Gaintzako astoa al haiz?, hi Gaintzako astoa al haiz?...". Astoek ez zioten kasurik egiten, baina, ilarako azken astoari galdetu zionean, buruarekin baietz egin zion. Horrela jakin zuen nire aitak zein zen Gaintzako astoa, nire aita txunditua geratu zen. Urteak pasata ere, familiartean eta lagunartean, istorio hori gogoratzean, barrez jarduten dugu.

"San Prudentziotan erroskilak saltzera joaten ginen"

ETAren SU-ETENA

ETAren su-eten iraunkorra dela eta, herriko partidu politikoei euren iritzia eskatu diegu oraingo alerako. Su-etena nola ikusten duten galdetu diegu eta, bide batez, etorkizunari begira, zer itxaropen duten ETAk hartutako erabaki hau dela eta.

Bake prozesua

ETA-k iragarritako su etenaren erabakiak itxaropena ekarri du herri honetara. Erabaki hori ez da ezerezetik sortutako urratsa, baizik eta lan politiko luze, zail eta era berean itxaropentsu baten emaitza publikoa da. Su etenaren erabakia, bake prozesu horri eman zaion bultzada izugarria da, bake prozesuari beste abiada bat emango diona eta, ziurrenik herritarren parte-hartzea eta inplikazioa areagotuko dituena. EA-n behintzat oso harro gaude egin dugunarekin, eta egin dugun moduarekin.

Elkarrizketa politikoa, desberdinen arteko akordioa eta herritarren hitza kontzeptuek berebiziko garrantzia hartzen dute aurrerantzean. Orain ezin dira debateak ekidin. Espainiako gobernua, , Erkidegoko gobernua, alderdi desberdinak, sindikatuak eta eragile sozialak izango dira bake prozesu honen protagonistak. ETA desagertzeko hartu beharreko bide eta neurriak berriz, Espainiar gobernua eta ETA-ren artean eman beharko dira.

Beti, uneoro egongo dira herri hau baketzearen aurka dauden interesak. Ez ditzagun ahaztu. Eta ezkutuan badaude ere, modu batean edo bestean prozesu hau leherrarazten saiatuko dira interes horiek dituztenak.

Apirilaren bateko manifestaldia izan zen bake prozesuari herritar askok eman nahi diogun bultzadaren agerpide publiko eta jendetsua. Konponketa garaia da lelopean hiru kontzeptu azpimarratu nahi ditugu: Euskal Herria, erabakia eta adostasuna. Batzuk, ez direla agertuko adierazi dute, hiru kontzeptu hauetako batekin ados ez daudela argudiatuz. Bakoitzak jakingo du zer egiten duen. Gu ordea ziur gara, bilduko garen pertsona andanak, helburu zintzoak ditugula eta bide horretan manifestaldi hau bakearen alde bultzadatxo bat emateko aukera paregabea dela.

Batasunaren iritzia

Batasunaren iritziz, ETAren ekarpen hau prozesu luze baten ondorioa izan da. Ez da izan zerutik eroritako gauza bat. Euskal Herriak gaitasuna erakutsi du Madrilek eta Parisek jarritako asimilazio tresnak gainditzeko eta gatazka politikoa bere oinarrian kokatzeko: hemen herri bat dago, eta bere eskubideak ditu. Bestalde, gure herria zatitu eta zauritu egiten duen marko politikoen krisiaren testuinguruan kokatu behar dugu ETAren ekarpena.

ETAk garrantzi handiko erabakia hartu du, izan ere, su-etena prozesu demokratiko bat martxan jarri ahal izateko ekarpen handia da. Baina ez dugu ahaztu behar, su-eten iraunkorra ez dela bakea, justizian oinarritutako bakea eraiki behar dela euskal herritar guztien eskubideak aitortuz eta euskal herritarren hitza eta erabakia errespetatuz. Euskal Herriari aitortu beharreko eskubide nagusiak "autodeterminazioa eta lurraldetasuna" lirateke. Beraz, irtenbide politiko eta demokratikoen aldeko tsunami soziala abiatzeko garaia da.

Une honetan, pilota guztion teilatuan dago eta ez dago aitzakia merke eta alderdikerientzat lekurik. Gatazkaren Konponbiderako Mahaia martxan jartzeko beharrezkoak diren oinarriak, printzipioak eta konpromisoak adostea da Batasunaren lehen zeregina, eta hori gauza dadin buru belarri arituko da ezker abertzalea, presarik gabe baina etenik gabe, lurralde bazterketa eta bazterketa politikorik gabe, izan ere, Mahai horrek akordio politiko bat erdietsi beharko luke, gatazkaren iturri izan diren faktoreei irtenbide hitzartua emanda. Azkenean, euskal herritarrok izango gara guri buruz erabakiko dugunak eta gainera aukera politiko guztiak defendagarriak eta gauzagarriak izango dira, independentzia barne.

Euskal herritarrok, bestalde, prozesu honetan erne eta aktibo egon behar dugu. Herri mobilizazioak garrantzi izugarria du memento honetan, funtsezkoa da prozesuaren hasieratik bertatik jendeak iniziatiba hartu, kalera atera, eta alderdi politiko eta beste eragile batzuk presionatzea, benetan prozesua beharrezko norabidean jartzeko,

izan ere, arriskuak egon badaude: batetik, Espainiako Gobernuak ETArekin osatuko duen mahaian irudika dezake gauzak aurrera doazela eta alde batera utzi mami politikoa, guztiz "teknikoa" izan daitekeen eskema erabiliz; bestetik, EAJri bigarren ziklo autonomikoa inposatzeko tentaldia ikusten zaio, eta horrek gatazkaren luzamendua besterik ez luke ekarriko.

Batasunak etorkizuna lasaitasunez eta konfiantzaz begiratzen du. Inork ez digu ezer oparituko ezta konponduko ere. Euskal Herriari dagokio borrokan eta lanean jarraitzea gatazkaren erroei helduz prozesuak konponbide orokor, justu eta iraunkorra izan dezan. Oraindik bide luzea dago egiteko, baina Ezker Abertzaleak badaki Konponbiderako Mahaian ordezkatuko duen posizioa eta jarrera herriaren gehiengoarekin bat datorrela. Euskal Herria dugu irabazteko!

Gizartearen garaipena

ARALAR

Joan den martxoaren 22an ETAk su-eten iraunkorra aldarrikatu zuenean euskal herritarrok izugarrizko lasaitasuna sentitu genuen; Bernardo Atxaga idazleak zioen bezala, motxila astun bat bizkarretik kendu bagenu bezala sentitu ginen. Bazen garaia! Ongi etorria, beti berandu bada ere!

Su-etena gizartearen garaipena da. Indarkeria eta enfrentamendu egoeran bizitzera etsitu ez den gizartearen garaipena. Hori dela eta, ezer baino lehen, horiei guztiei gure eskerrik eta zorionik beroena.

Zer ekarriko du su-eten honek? Ba al dakigu benetan zenbaterainoko aldaketak etorriko diren? Izan ere, gutariko askok –46 urte baino gutxiago ditugun guztiok- ez dugu sekula ETArik gabeko egoerarik ezagutu. Eta 46 urtetik gorakoek ere ez dute bake egoera iraunkorrik ezagutu.

(1) Hasteko, mentalitate edo txip aldaketa egin beharko dugu. Denbora gehiegi daramagu etsaien logikan bizitzen. Baina bakea ez da elite politikoetan soilik eraikitzen, bakea norberarengan hasten da, eta horrek orain arteko jarrera asko aldatzea eskatzen du, gure egunerokoan.

Irlandako bake-prozesuan aritu zen Sinn Fein-eko kide batek zioen negoziazioak hiru mailetan ematen direla: batetik, arerio politikoarekin; bestetik, bakoitzaren talde politikoaren baitan; eta azkenik, bakoitzak bere buruarekin egin beharreko negoziazioa zela, hain justu, zailena.

(2) Su-etenak, bestalde, bake prozesua martxan jartzea ekarriko du. Indarkeria egoerak eragindako giza eskubide guztien urraketak gainditzea izan behar du helburu: biktima guztien errekonozimendua eta erreparazioa batetik, eta presoak kaleratzea bestetik.

(3) Gatazka politikoa gainditzeko eztabaida politikoari ekiteko aukera berria irekiko da. Ikustear dago trantsizioan lortutakoa baino adostasun zabalagoa lortzeko gai izango garen. Baina akordiorik ez badago ere, aurrerantzean gure eskubideen aldeko borrokak soilik politikoa izan beharko du. Ez dago beste bide zilegirik.

4) Aldaketa berezia etorriko da, ezkertiar eta abertzale izanik, bakezaleak garenontzat ere. Ezkerreko politika eraginkorra egin nahi izan dugunak beti ikusi dugu nola lotzen zen espazio politiko hori indarkeriarekin eta ezin izan dugu politika askatasun osoz egin. Orain aukera berriak irekiko zaizkigu.

Bukatzeko, beharrezkoa ikusten dugu irakasgairen bat ateratzea: zertarako balio izan du hainbeste sufrimendu eragiteak eta jasotzeak? Ea sartzen zaigun behingoz buruan, gizartea erakartzeko modua ez dela gizarte horri min egitea; gizarte horretako kideak hil, mehatxatu eta estortsionatzea. Gehiengoak erakartzeko bidea argudioen pisuarekin konbentzitzea da, gehiengo demokratikoak biltzea eta gure eskubideen aldeko indar metaketa lantzea.

Ikasi dezagun behingoz eta borrokatu dezagun buruarekin!

Su-etena

Bati baino gehiagori entzun diogu, azken egun hauetan, ETAren su-eten iraunkorrak ekarri digun egoeraz gozatzeko tarte pixka bat behar dugula

Guztiok denbora luzez itxaron dugun egoera honek gure bizitzan eta batez ere politikan, aldaketa sakonak ekarriko ditu eta ezinbestekoa dugun lana bideratzeko ongi jabetu behar gara sortu diren aukera berrietaz.

Su-etenaren berri izan genuenetik hilabete pasatu da eta denbora honetan sarritan entzun eta sentitu ditugu gure artean, lehenik poza, ondoren su-eten eszenatoki batek sortzen duen lasaitasun puntua, nola ez etorkizunarekiko itxaropena eta azkenik su-eten hau betirako izango dela sinestu nahia.

Bake prozesua eta normalizazio prozesua dira oraingo lehentasun eta erronka nagusiak, alderdi politiko nahiz gizarte eragile guztiok hortxe murgildu behar dugu buru-belarri.

Tentazioa izan dezakegu, batez ere alderdi politikook, hauteskunde garaia gerturatzen doan eran, beste alderdiei eraso merkeak egiteko, eta hori huts larria izango litzateke, guztion parte hartzea ezinbestekoa baita prozesuak aurrera egingo badu.

Guztiok beharrezkoak garenez, orain arteko eraso dinamika alde batera utzi, eta bestearen arrazoiak eta zailtasunak ulertzeko ahalegina egin beharrean gaude.

Topikotik gertu baldin badago ere, behin eta berriro azpimarratu beharrean gaude burua hotz eta bihotza bero izan behar ditugula, hori bai, tripak bakean utzita.

Indar berrituta itxaropenez lanean jarraitu behar dugu gure helburuak egun batetan lortu ditzagun. Hau da behintzat gure desioa eta konpromezua.

Gero eta triatleta gehiago gure herrian

Gero eta arrakasta gehiago du kirol honek hainbat herritarren artean. Nahiz eta Getarian talde federaturik ez egon, hainbat herritar Zarauzko eta Zumaiako taldeetako kide dira

Getarian ez dago triatloi talderik, baina hainbat herritarrek dute kirol horretarako zaletasuna. Hori dela-eta, inguruko herrietako elkarte eta taldeetako kide dira. Zarauzko Triatloi Elkartean zortzi getariar aurki ditzakegu: Ekaitz Balenziaga, Zigor Saizar, Gorka Olaskoaga, Unai Gastañares, Leandro Andreano, Uxoa Larrañaga, Jose Ignacio Alberdi eta Alberto Veci. Zumaiako Triatloi Taldean, berriz, bi getariar daude: Gorka Saizabal eta Imanol Iribar. Herriko nesken artean, kirol honek ez du arrakasta gehiegi, eta Uxoa Larrañaga soilik lehiatzen da triatloietan.

Biatloiekin eman zitzaion hasiera denboraldiari, eta herritar batzuek ere ekin diote beraienari lanari. Entrenamenduei dagokionez, kirolari bakoitzak erabakitzen du entrenatzen noiz hasi. Batzuk, Behobia-Donostia lasterketa pasatzean hasten dira beren entrenamendu saioekin; beste batzuk, berriz, urrian ematen diote hasiera. Entrenamenduak bakarkakoak izaten dira; izan ere, kirol hau bakarkako kirola da, eta, horrez gain, kirolari bakoitzak bere erritmoa du. Federazioak ez ditu behartzen entrenatzaile bat izatera, baina bada laguntza pertsonala duen kirolaririk. Entrenatzaile horien eginkizuna kirolariak kontrolatzea da, baita horiek egin beharreko entrenamendu saioen plangintza egitea ere.

Probei dagokionez, nesken eta mutilen artean bada alderik. Alde hori proba egiteko kirolariek behar izaten duten denborari lotuta dago, eta ez hainbeste proba beraren bolumenari. Neskek eta mutilek egin behar izaten dituzten distantziak berdinak dira, distantzia horiek egiteko behar izaten duten denbora, aldiz, aldatu egiten da; oro har, mutilek denbora hobeagoak egiten dituzte. Gauza jakina

da mutil gehienek neskek baino indar gehiago dutela, eta hori agerian gelditzen da korrika eta bizikletaz egin beharreko zatietan; izan ere, denborari dagokionez, alde handi samarra izaten da nesken eta mutilen artean. Igeriketako proban, berriz, aldeak ez dira hain nabarmenak, proba-zati horren gakoa ez baita indarra, teknika baizik.

Kirol guztietan bezala, triatleten artean ere kategoriak daude: jubenilak, 23 urte azpikoak, seniorrak eta beteranoak; azken horietan ere beste azpikategoria batzuk bereizten dira. Gaztetxoen artean kirol honek ez du estimazio gehiegi; hori dela eta, parte hartzaile gehienak 23 urtez azpikoak, seniorrak eta beteranoak dira.

Beste kiroletan bezala, triatletei izugarrizko poza ematen die lasterketa bat irabazteak; baina, zenbait kasutan, irabazteari ez zaio lehentasuna ematen, lasterketa amaitzeari baizik.

Gorka eta Imanol Ironmanean

Maiatzaren 20an, Gorka Olaskoaga triatletak Puerto del Carmenen (Lanzarote) egingo den Ironman proban parte hartuko du, eta urriko lehen egunean Imanol Iribar Elba uhartean (Italia) ospatuko den Ironmanean lehiatuko da. Ironman triatloi modalitate bat da, eta mundu osoko hainbat txokotan egiten da: Brasil, Hego Afrika, Suitza... Existitzen den triatloi modalitate gogorrena da: 3,8 km igerian, 180 km bizikletaz eta 42,20 km korrika.

Dagoeneko, entrenatzen dihardute triatloi proba gogor hauetan beraien esfortzu guztia emateko.

Puerto del Carmen eta Elbako Ironmanetan denbora ona egiten baldin badute, Hawaiirako txartela lortuko dute bi triatleta hauek. Hawaiiko proba da Ironmanen izarra, oso proba gogorra da eta hemen denbora ona egitea ere meritu latza da.

Eutsi gogor denboraldiari eta zorte on guztioi!

VIVEROS SAN ANTONera bixita

6. mailakoak Inguruneko arloan lan egiten dugu, eta gaiarekin lotuta Viveros San Anton ikustera joan ginen. Aurretik gure tutoreak eta Ventura Arangurenek eguna eta ordua adostu zuten eta astearte batean han agertu ginen.

Helburua gure herriko industria bat bisitatuz eta bertan lan egiten duen pertsona bat elkarrizketatuz datuak lortzea zen. Venturak modu ulerkorrean eta atseginez handiz, behar genuena argitu zigun.

Izena eta kokalekua: Viveros San Anton-portua, Getaria. Moluskuak eta krustazeoak hazten eta saltzen dituen enpresa. Noiz sortua: 1971ean.
Langile kopurua: 20 lagun gutxi gora behera.
Lan ordutegia: aldakorra da baina orokorrean 07:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
Erabiltzen diren lehengaiak eta nondik datozen: Eskozia, Ingalaterra, Irlanda, Frantzia eta Espainia (Galizia)
Erabilitako energia: elektrikoa eta gasolioa.
Zer makina dituzten: banatzaileak eta ontziratzaileak.
Zein animalia hazi eta saltzen dituzten: moluskuak: almeja, muskuiluak, ostra, karraketa. Krustazeoak: buia, txangurrua, abakandoa, nekora, otarraina, izkira eta zigala.
Non eta nori saltzen zaizkion: bezero finkoei Iberiar Penintsula osoan.
Nola garraiatzen dituzten: kamioietan
Zer egiten den hondarrekin: normalean ez da ezer sobratzen.
Zer arazo dituzten eta zer soluzio ematen zizkien: arazo handiena bizirik mantentzea da eta horretarako ondo zaintzen ditugu.

Eskerrik asko zuek eskainitako arretagatik eta bereziki Venturari. Oso ondo pasa genuen eta eta gauza asko ikasi genituen

6. mailako ikasleak.

ARRAINAK, ITXASKIAK, IZOZTUAK
ELKANO ARRAINDEGIA
KAIA Telefonoa: 943 140 192 20808 GETARIA

Amaia Lazkano
Miren Lazkano
San Prudentzioa auzoa
telefonoa: 943 14 00 67
Mugikorra: 669 258 061
faxa: 943 14 05 44
20808 GETARIA
Xabin Etxea
LANDA ETXEA – JATETXEA

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
faxa: 943 140 604
Mobila: 652 775 061
E-posta: eugeniouranga@hotmail.com

ASKIZU
Udal aterpetxea.
Ingurugiro eskola.
Erreserbak: 943 833 641
Etxe osoa: 200 €/eguna
Asteburua: 320 €
Askizu auzoa z/g 20808 Getaria · Gipuzkoa

elan euskadi
ONGD - GGKE

Proiektuak eta lagunak bisitatuz

Urtean hainbat bidaia egiten ditu Ulpianok.

Martxoaren 12tik apirilaren 9ra Elan Euskadiko kide den Ulpiano Vigil-Escalera Nikaraguan izan da. Elkarteko zenbait bazkidek lantzean behin borondatezko bidaiak egiten dituzte Ameriketara, elkarlanean aritzen diren taldeekin duten harremana sendotzeko asmoz, batik bat.

Nikaragua egoera gogorra bizitzen ari da, azken urteetan ez dira asko aldatu bertako bizi baldintzak. Ulpianok esan digunez, "populazioaren zati handi bat, %30 inguru, pobrezia gogorra jasaten ari da, eta beste %40ak garapen maila oso eskasa du, hiru arrazoi direla kausa: lan merkatuak duen ezegonkortasuna, soldata txikiak, eta osasunbidera zein hezkuntzara heltzeko zailtasunak".

Eta baldintza hauetan garatzen dira Elan Euskadiren proiektuak, populazio zati baten bizitza maila zertxobait hobetzeko asmoz. Hainbat proiektu ditu Elan Euskadik Nikaraguan, eta hauetako bakoitza aurrera eramateko bertako talde batekin elkarlanean ari dira.

Movimiento Comunal Nicaragüense

Jinotegan talde honek dituen egoitzak berritzen ari dira Errenteriako eta Zarautzko udalen laguntzaz. Sacramentoko komunitatean etxebizitzak eraikitzen ari dira Aiako Udalarekin sinatutako akordioaren ondorioz. Azkenik, Irungo Udalaren dirulaguntzarekin, Natanliko emakume indigenen trebakuntza bultzatuko duen proiektua jarriko da abian.

Gabriela Mistral ikastetxea

azken urteetan aurrera eraman den proiektua da hau. Egoitza dotorea egin dute: bi solairu ditu, liburutegi eta ordenagailu gela ere bai; irekitze ekitaldia bisita honetan egin dute. Irungo Udalaren laguntza jaso du proiektuak.

Los Pipitos (Somoto)

Hegazti-granja bat berritzea eta handitzea izan da proiektu honen muina, oilaskoak eta arrautzak ekoizten dituzte bertan.

Los Pipitos (Jinotega)

Urritasun fisikoak dituzten haurren gizarteratzea da elkarte honen helburu nagusia, eta bere lanerako beharrezkoa duen finantziazioa, neurri handi batean, Elan Euskadik bideraturikoa da.

Jinotegako bekak

Orain bost urte ekin zion Elan Euskadik beken proiektuari. Honen bidez, indigenek ikasketa unibertsitarioak egiteko modua dute. Orain arte, hiru lizentziatura lortu dira, eta egun, 32 dira beken babesa duten ikasleak. Getariako Udalak, hainbat enpresek (Indaux, Plasticos Pardo, Plasticos Tolosa, Orona), Elan Euskadiko bazkideek, eta diru emaile pribatuek laguntzen dute proiektu honetan.

Elan Euskadiren proiektuak bertatik bertara nola doazen ikusten egon da Ulpiano Nikaraguan. Bertan dituen lagunak bisitatzeaz gain, Ulpiano liburu baten aurkezpenean ere izan zen, "Jon Ander Bilbao giza antropologoa da, Nikaraguan bizi da, eta Elanekin harremana du. *El impacto de la maquila en una zona campesina. Sebaco*. Nicaragua liburua idatzi berri du, zenbait enpresek, ehungintza alorrekoek batik bat, Nikaraguako bizilagunengan izan duten eragina aztertu du liburu honetan".

FULDAIN
FARMAZIA

Udaberri alergiak

Urtero, garai honetan pertsona kopuru handia dago (%15etik 20ra) zalantzan jartzen dituenak udaberriari lotuta dauden ezaugarri bukolikoak. Arrazoia: urtaro loretsu honetan agertzen den gaixotasuna, alergia, bat baino gehiago derrigortzen duena udaberri osoa musuzapi, doministiku eta malko artean igarotzera.

Zerk eragiten du alergia? Gure sistema inmunologikoak gai arrotzetatik babesten gaitu. Batzuetan, sistema hau nahasi egiten da, eta kaltegarritzat hartzen ditu benetan gaitzik eragiten ez duten substantziak. Alergenoak deritzen gorputz arrotz hauekin kontaktuan ipintzean, sistema inmunologikoak gehiegizko erantzuna ematen du, alergiaren sintomak eraginez.

Zeintzuk dira alergeno esanguratsuenak? Zuhaitz, zelai eta sasietako polena, lizuna, animalien zolda (zahia) eta etxeko hautsean aurkitzen diren intsektu txikiak.

Polena: jarrai iezaiozu aztarna. Polena landareek sortzen duten eta orratz punta baino txikiagoa den substantzia da. Landare batek milaka polen ale sor ditzake;. Haizeak ehunka kilometro garraia dezakeen hauts horixka hau ikusezina da airean dagoenean

www.polenes.com orrialdearen bitartez jakin dezakegu airean dagoen polen kantitatea. Jakina da ingurumeneko kutsadurak, polenak alergia sortzeko duen gaitasuna handitu egiten duela. Horrek erakusten du zergatik polenari alergia dioten pertsona kantitatea handiagoa den hiriburuetan herrialdeetan baino.

Nola kontrolatu sintomak? Egokiena alergia sortarazten duen kausa ekiditea da. Lagungarriak izan daitezkeen zenbait aholku:

- Gauetan leihoak itxi

- Goizeko 05:00tatik 10:00etara (polena igortzen den garaia) eta arratsaldeko 19:00etatik 22:00etara (haizea hoztean polena atmosferatik jaisten den garaia) kanpoan egiten diren aktibitateak gutxitu.

- Oheratu aurretik dutxa edo bainu bat hartu, ilean eta azalean dagoen polena kentzeko.

- Bidaiatzean automobileko leihoak itxita izan. Haize egokituari filtroak ipini.

-Polinizazio altuko garaian irtetea ekidin, batez ere egun haizetsuetan.

- Kalera irtetean eguzkitako betaurrekoak erabili.

Lehenengo aldia: alergia edo katarroa? Errinitis alergikoaren sintomak, %80-en kasuan, 18 urte izan baino lehen jasaten dira, eta gehienetan katarroarekin nahasten da. Horregatik, tratamendu egoki bat jasotzeko, garrantzitsua da bien sintomatologia bereiztea. Desberdintasun garrantzitsuenak ondorengoak dira:

ALERGIA

Sintomak bat-batean agertzen dira

5 dominstiku baino gehiago

Sintoma bereizgarriak: hazkura eta dominstikuak

Alergia krisi batek ordu batzuk iraun ditzake

Begietako malko-jarioa eta mukitasun gardena

Sudurreko kongestioak sudurreko bi aldeak ixten ditu

KATARROA

Sintomak pixkanaka agertzen dira

Dominstikuak urriagoak dira

Sintoma nagusia mukitasun lodia da Katarroak 7-10 egun iraun ditzake

Begietako kongestioa eta mukitasun horixka

Sudurreko kongestioak alde bakarra ixten du

Nongoa zara?

Edinburgo, Eskozia. 2001. urteko uztaila. Golfeko bi makila hartu eta hiriko parke bateko zelai berdean pilotatxoa zuloan sartu nahian zebilen. Ez izan, ordea, eskoziarra, euskalduna baizik eta genetikoki hobe legokioke "aizkorapustuan" edo sokatiran aritzea. Gehienez ere bizikletan aldapa gora eta behera.

Ile-gorri, azal-xuri eta aurpegian peka manifestazioa duen batekin egiten du topo. "Hi"(Kaixo, ingelesez). Ze ondo, pentsatzen du, mintzapraktika egingo diat honekin. "How are you?" (zer moduz?) erantzuten dio. "Fine. Where are you from? (Ondo. Nongoa zara?) galdetzen dio aborigenak. Izorrai, orain nola azaldu spanish-a ez dela, Basque Country esaten badio, atzetik betiko erretolika bota beharko dio: Frantzia eta Espainia artean dagoen herria dela, Pirinio mendi lerroaren ekialdean kokatua, hizkuntza propioa duela, Europako zaharrenetakoa, bere ama hizkuntza euskara dela… eta ia bi ordu iraungo lukeen Geografia eta Historiako ikasgaiaren antzeko betiko katramila.

Eta nekatuta dago, atzerrira joaten den bakoitzean kortesiazko agurrak hain luze jotzen baitiote. Total, spanish esaten badu, Euskal Herrian inork ez du jakingo eta, beraz, ez dute sutan erreko herejeen modura.

I'm from Spain (espaniarra naiz).
Español? No jodas! Yo soy de Euskadi, Abaltzisketa, zerka de Tolosa. Conozes? Izorrai, bi aldiz. Orain nola eman buelta tortillari. Uff! Euskalduna izan baño nayoooo…

***

Bernardo Atxagaren azken liburua "Lekuak" irakurtzen ari nintzela, gure tokia eta tokikotasunari buruzko armiarma sare asko desegin zaizkit. Amaraunak, denboraren poderioz pentsamenduak bertan pausatuak. Euskal Hiria, autodeterminazio eskubidea, erabakia hartzeko unea. Eta barkatzeko.

***

Zein erraza den besteei barkatu behar dutela eskatzea; batik bat, eskatzen duen horren inguruko inor torturatu ondoren hil ez dutenean; edo bahitu ostera, baso galduren batean exekutatu ez dutenean.

Jarri bere tokian. Nik ez dakit barkatuko nukeen nire ama bidegurutze batean, trafikoa zuzentzen ari zen bitartean, bizkarretik tiro egin eta oraindik lurrean bizirik zegoela, buruan PUM! errematatu zuena. Edo gaueko ordu txikietan, lotan geundela, etxeko atea danbateko batez bota, aita erdi biluzik hartu eta atzetik ama negar zotinka besotik heldu nahian zebilela, fusilaren ipurdiaz bazterrera bota zuten aurpegia estalitako mamu beltz haiek. Nola barkatu aita hilkutxan bidali zigun postari komandantea, aitaren gorputzean bere zigilu propioak listuz itsatsi beharrean, odolez pausatu zituen uniformeduna?

Gertrudis Luloaga: "Kantatzeko zaletasuna betidanik izan dut"

Maria Gertrudis Luloaga Elizondo, herrian Gertrudis izenez ezagutua, 1944. urtean jaio zen Elkano kalean, eta Getarian bizi izan da urte hauetan guztietan. Herriko gizon-emakume gehienek bezala, familia aurrera ateratzeko lan handia egina da Gertrudis.

Era askotako lanak egin izan ditu Gertrudisek bere bizitzan. Herriko jende askok bezala, kaian lanean jardun zuen, eta garai haiek ahaztezinak zaizkio; orduko teknologiak gaur egungoekin alderatuz oso eskasak ziren, eta lan egiteko beste erritmo bat izaten zuten. Lehen, orain baino askoz ere antxoa gehiago sartzen zen Getariako kaian, eta hori oso gogoan du Gertrudisek: "Portuan ere lan egin nuen. Udaberrian sirena jotzen zuenean, gaueko hamabiak arte ez ginen gelditu ere egiten". Urteak aurrera doaz eta bilakaeraren ondorioz, gauzak asko aldatu dira Getarian, baita mundu osoan ere. Lehenengo sektoreak beherakada nabarmena jasan du, eta, Gertrudisen iritziz, hori argi ikusten da herriko portuan: "Gertatu izan da berrehun itsasontzi batera etortzea; Galiziatik, Kantabriatik... etortzen ziren. Lehen, orain baino itsasontzi gehiago etortzen ziren; gertatu izan zitzaidan, portuan, sare gainean, lo egin, eta, hurrengo goizean, bertan esnatu eta lanean jarraitzea".

Kaiako lana alde batera utzi eta, 1978an, denda bat ireki zuen Gertrudisek, Elkano kalean: Zatozte denda, hain zuzen. Berak esan digunez, denda dagoen leku hori betidanik izan da herritarrentzako zerbitzu-gunea bat: "Denda dagoen lekuan, beti zerbait egon izan da: aduana, bankua, postetxea...". Zatozte dendan beti-betiko gauzak aurkitu ditzakegu gaur egun ere; urteak pasa dira, baina Zatoztek bere nortasunari eutsi dio: "Lehen-lehengo gauzak saltzen jarraitzen dut, ez dut gauza gehiegi aldatu. Lehen mahoizko arropa ugari saltzen nuen".

Gertrudisen dendan, arropaz gain, bada loteria ere; urte osoan saltzen du loteria, ez Gabonetan bakarrik. Inoiz ez du sari handirik banatu; baina, hala ere, Gertrudisek ez du horren itxaropenik galdu: "orain dela berrogei bat urte hasi nintzen Donostiatik loteria ekartzen. Portuan lan egiten nuenean, Donostiara joanez gero, lankideek loteria ekartzeko esaten zidaten".

Negozio baten jabe izateaz gain, elizan ere laguntzen du, ahal duen neurrian: "Hasiera batean, lehengo bikarioari laguntzen nion, eta, gero, Nazareteko Jesusen arduradun egin ninduten". Herrian izan zen sutearen ondorioz, Aldare Nagusiko mahaia zapirik gabe zegoen, eta horrek izugarrizko nahigabea sorrarazten zion Gertrudisi: "Loteriako eskupekoak ematen zizkidatenean, potetxo batean gordetzen nituen eta diru pixka bat aurreztea lortu nuenean, Donostiara joan eta Aldare Nagusirako zapi bat erosi nuen". Gabonetako jaiotza jartzea ere Gertrudisen eginbeharra da: "Lehen, herriko abesbatzari zegokion jaiotza jartzea, eta, ni bertan kantatzen hasi nintzenean, lan hura nik egin nezakeen galdetu zidaten. Niri asko gustatzen zait jaiotza jartzea eta, horrezaz gainera, ez dakit ezeri ezetz esaten". Jaiotza Aldare Nagusian ipintzen zen, baina baranda ipini zutenetik, hasiera batean jartzen zen lekuan jartzen da, berriz ere: "Jaiotza handia da eta elizan ez dago leku gehiegi".

"Jaiotza handia da eta elizan ez dago leku gehiegi"

Gertrudisek badu txiki-txikitatik datorkion zaletasun bat: musika. Pozik dagoenean, kantatu egiten duela aitortu digu, eta baita triste dagoenean ere; izan ere, kantuek tristura alde batera uzten laguntzen diote: "Kantatzeko zaletasuna betidanik izan dut; uste dut jaiotzatik datorkidala kantatzeko zaletasun hori". Garai batean, doktrina entzuten eta errezitatzen ikasten zen; Gertrudisen izeko batek, ordea, honela esan zion behin Don Telesforori, orduko apaizari: "Jar iezaiozu doktrina gramofonoan, eta nire iloba honek berehala ikasiko du."

Oraingo honetan sukaldariz aldatu dugu eta Aingeruk udako errezeta goxo eta freskagarri bat eskaini digu. Edonork egiteko moduko errezeta da, osagai gutxikoa, eta denbora gutxian egitekoa. Nahi izanez gero platertxo batean goilaraz jan daiteke edo baita edalontzian ere. On egin!

Samin goxo

Osagaiak (lau lagunentzako):

Lau limoiren sukua

Lau yogurt natural

Esne kondentsatua (bakoitzaren gustuen arabera)

Egiteko modua:

Lau limoiri zukua atera boll batean jarri eta lau yogurt naturalak bota. Amaitzeko esne kondentsatua bota. Kantitateari dagokionez ez dago neurri zehatzik, gustuen arabera bota daiteke osagai hau.

Oporrak musikaz blai

Aste Santutako egunak nahiko arraroak izan ohi dira herrian sortzen den metamorfosiaren ondorioz. Herriko jende askok hanka egiten du eta, aldi berean, herria kanpotarrez gainezka agertu ohi da.

Kontzertuak ere ez dira salbuespen eta eragin zuzena izan duelakoan gaude, ohikoak diren hainbatek ezin izan baitzuen azaldu. Dena dela taldeak biziki interesgarriak ziren eta zuzeneko indartsukoak. Lehendabizi "Bilbo Hiria" lehiaketan poprock atalean bigarren fasera iritsi diren Malatesta´s boskote murtziarra. Irudi zinematografikoak, post-rock gorakadak eta beherakadak, giro anbientala sortzen zuen tronpeta soinua, psikoledia...hau dena beti ere abesti instrumentaletan oinarrituta.

Guztira berrogeita hamar minutuz aritu ziren eta jendea gustura utzi zuten.

Horien atzetik Kataluniako laukoterik berezienetako bat: Nebur. Omega 5 talde mitikoan ibilitako Rubenek sortutako taldea, eta hasieran bakarkako lana zena orain talde bezala eratzea lortu duena. Mila eragin ezberdinetatik edaten du taldeak: Countrya, punk-a, 80. hamarkadako trash-a, garagea, funk-a, zarata, elektronika, Black Sabbath, pop-a eta beste hamaika elementu. "Electricity for your loving soul...the Valkyria" disko berria aurkeztera etorri zitzaizkigun, non bertan Orgasmic Toothpicks taldeko abeslaria zen Looshak kantu batean euskaraz kolaboratzen duen.

Benetan gomendagarria atera berri duten lan dibertigarri hau! Eta berdin zuzenekoa! Abesti ez oso luzeak, bata besteakin alderatuta guztiz ezberdinak baina beti ere intentsitate eta melodia politekin.

Testu hau irakurtzen duzuenerako berriz, martxan izango da, Elektrokanguro 06 elektronika jaialdia. Hiru talde australiar, Estatu Batuetako bat eta euskaldun bat. Elektronika, jarrera, dibertsioa, probokazioa, disfrazak, txinpartak eta beste hainbat sorpresa. Gaztetxea diskoteka bihurtuko da!!! Eta hik galdu egin behar dun/k??

GOROSTIAGA Anaiak, O.E.
KONTSERBAGILEAK
EDARI BANATZAILEAK
Txoritonpe, 3 · tel.: 943 14 01 07
20808 GETARIA

HARRALDE
GETARIA NAGUSIA,17
14 07 04

IMANOL ELORZAren ERAKUSTOKIA
IMA ELORZAREN ESKULTURAK
eta
IMANOL ELORZAREN OLIOZKOLANAK
katrapona 2, 20808 Getaria

] maiatzeko agenda

] kirolak

[Apiriletik maiatza bukaerara]
XABI IÑURRITA MEMORIALA IX. FUTBITO TXAPELKETA
Ordua: larunbat arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara
Lekua: frontoia
Antolatzailea: Gure Txeru elkartea

SALBATORE DEUNA IX. PILOTA TXAPELKETA federatuentzat (kadeteak, jubenilak eta 22 urtetik beherakoak)
Txapelketaren hasiera: maiatzaren 2a
Partida-egunak: asteartea eta osteguna (19:00etatik aurrera) eta larunbatetan (maiatzean 19:00etan, ekainetik aurrera 17:00etan)
Antolatzailea: Gure Txeru elkartea

[Maiatzak 12, ostirala]
ARETO FUTBOLA: Irizabal Arrainak - CLI.DENT. ALDAZ.
Ordua: 21:30ean
Lekua: kiroldegia

EMAKUMEEN BINAKAKO LEHENENGO PALA TXAPELKETA
Txapelketaren hasiera: maiatzaren 5a
Partida eguna: ostiral arratsaldea (19:00etatik 22:00etara)
Lekua: frontoia

] musika

[Maitzak 13, larunbata]
KONTZERTUA: KITARRA EMANALDIA
Kitarra-jolea: Ana Ayneto Pardina (Mundaka)
Ordua: 20:15ean
Lekua: Salbatore Deunaren Eliza

[Maiatzak 19, ostirala]
Hendaiako Musika Eskolako ikasleen KONTZERTUA.
Ordua: 19:00etan
Lekua: Eskolako aretoa
Antolatzailea: Getariako Musika Eskola
Ordua: 22:00etan
Lekua: gaztetxea

] hitzaldia

BIHOTZA, BIZIREN MOTORRA
Ordua: 18:00etan
Lekua: Arrantzale Zaharren Elkartea
Antolatzailea: Arrantzale Zaharren Elkartea

ADINEKO PERTSONEN ONDO LO EGITEKO BEHARRA
Ordua: 18:00etan
Lekua: Arrantzale Zaharren Elkartea
Antolatzailea: Arrantzale Zaharren Elkartea

] festak

[Maiatzak 14, igandea]
HERRI URRATS 2006 -SENPERE- "Geroa egun gurea"

[Maiatzak 15, astelehena]
SAN IXIDRO EGUNA
Meaga auzoko jaiak: erromeria, gazte afaria, herri kirolak...
*** Ikus esku-programa

[Maiatzak 27, larunbata]
EUSKAL JAIAK 2006
Alardea, sardin-jana, azoka, Trikitilai Gazteen Getariako VII. Txapelketa, Gure Txeru dantza-taldearen erakustaldia, euskal musika, dantza...

] Euskal Astea

[Maiatzaren 22tik 28ra]
Hitzaldiak, musika, poesia, antzerkia, umeentzako tailerrak...

] kz gunea

Apirileko ordutegia: 17:00etatik 20:00etara.
Asteartetan tutorea egongo da, 16:00etatik 20:00etara (maiatzak 2,9,16,23 eta 30)

MAIATZEKO MINTEGIAK:
[Maiatzak 2, asteartea]
POSTA ELEKTRONIKOA (OUTLOOK EXPRESS) (17:00-19:00)

[Maiatzak 9, asteartea]
LOR EZAZU LANPOSTU BAT (17:00.-18:00)

[Maiatzak 16, asteartea]
ITZULTZAILEAK (17:00-18:00)
BIDALI POSTAL BAT (18:00-19:00)

[Maiatzak 23, asteartea]
MIKOLOGIA - IBERDROLA (17:00-19:00)

[Maiatzak 30, asteartea]
KONTRATA EZAZU ZURE ASEGURUA (17:00-18:00)
ETXEBIZITZA LORTZEKO GIDA (18:00-19:00)
Lekua: Kultur Etxeko lehen solairuan

] irteera

[Maiatzak 7, igandea]
Zumaia Deba MENDI IRTEERA.
Antolatzailea: Gure Txeru elkartea

] deialdia

Festetako KONPARTSA.
Izen-emateko azken eguna: maiatzaren 24a.

telefono interesgarriak

Udal bulegoa 943 896 024
Faxa 943 140 190
e-mail:udala@getaria.org
Kiroldegia 943 140 432
Kirol-portua 943 580 959
Taxiak
Segundo 607 720 242
Jose Mari 607 403 498
Udaltzaingoa 943 896 146
Liburutegia 943 896 147
Anbulatorioa 943 140 957
Botika 943 140 441
SOSdeiak 112
Artzape 943000548

txapelketak

Maiatzak 14, igandea
III. PAELLA TXAPELKETA
Meaga auzoan. Ondoren herri-bazkaria.
Baldintzak: getariarra izatea-eta, taldeko bi lagun izatea. Antolatzaileek jarriko dituzte behar diren osagaiak eta suak; sukaldeko tresnak bikote bakoitzak ekarri beharko ditu. Zehaztu egin beharko da talde bakoitzetik zenbat lagun joango diren bazkaltzera.
Izen-emateko azken eguna: maiatzaren 10a

Maiatzak 20, larunbata
GETARIAKO I. MUS TXAPELKETA HERRIKOIA
4 erregetara eta 3 usteletara. (18 urtetik gora)
Ordua: 15:30ean zozketa egingo da, eta 16:00etan txapelketa hasiko da.
Lekua: Berdura Plaza
Izena emateko azken eguna: maiatzaren 18a
Izen-ematea: bikoteko 10 €
Sariak: 1. 300 €, txapela etagaraikurra; 2. 150 € eta garaikurra; 3: 60 €.

Maiatzak 27, larunbata
TRIKITIKILARI GAZTEEN GETARIAKO VII. TXAPELKETA
Ordua: 18:00etan
Lekua: herriko plazan
Adina: 18 urte bitarteko gazteak (18 urte barne)
Oinarriak herriko udaletxean egongo dira.
*** Deialdia irekia izango denez, bikote asko apuntatuko balira, kanporaketa bat egongo litzateke, txapelketa-eguna aurretik.
Sariak: 1. Txapelak, trofeoa eta 270 €; 2. Kopa eta 180€; 3. 120€; 4, 5, eta 6. 90€.

FULDAIN farmaziaren zaintza egunak: apirilaren 8tik 14ra (biak barne)

Mokau bat jaten

Maria Jesus Aizpuruk utzitako argazkia.

Urteak pasa ahala gauza asko aldatu dira gure herrian baina txikitioa egitearen tradizioa ez da aldatu. Orain dela urte batzuk herriko tabernetan aurki genetzakeenen artean, gehiengoak gizonezkoak ziren; emakume gutxi ikus zitezkeen herriko taberntan tragoak edaten. Gauza asko bezala, hau ere aldatuz joan da: gizon eta emakumeekin topatu gaiteke, zahar nahiz gazteekin. Herriko tabernak herriko jendearen hitzordu leku bilakatu dira azken urte hauetan.

Txikiteo hauetan edan eta jaten zenak ere izan du aldaketarik. Gaur egun mota askotako edariak eta pintxoak aurkitu ditzakegu herriko tabernetako barra gainean, baina lehen ez zegoen hainbesteko aukera. Normalean, txikiteora irteten ziren gizonek pikuak eta ogia jaten zuten, edan, berriz, ardo botila txikiak edaten zituzten, gaur egun, dagoeneko, tabernetan ez daude botilatxoak.

Zorion agurrak



Miren, Ane eta Axel
Maiatzak 21 eta 24
Hiruroi muxu asko eta egun on bat pasa, ZORIONAK!!!!
Aita eta amaren partetik.

Norbait zoriondu nahi izanez gero,

argazkia bere testutxoarekin

Txeruko postontzian utzi

edota Eskualtxetara eraman.

Gogoratu! bazkideek doan

daukazue eta bazkide ez

zaretenok 4 € ordaindu beharko

dituzue argazki bakoitzagatik.

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK
IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

publierreportajea [OPTIKA ZARAUTZ

Optika Zarautzek, ikusmenarekin soilik zerikusia duen zerbitzua eskaintzen duela pentsatzen du jende askok, baina entzumenarekin ere lotura handia du. Bista graduatzeaz gain, audiometria ere eskaintzen du Optika Zarautzek. Urte batzuk badira audiometriarekin lanean hasi zirela Ines Lizarraga eta Kontxi Ruiz getariarra. Ines optiko-optmetrista da eta Kontxi optiko laguntzailea. Kontxiren hitzetan "Adineko jendea animatu nahi dugu audiometriaren froga egitera. Konturatzen hasten direnean entzumena apur bat galtzen ari direla, adibidez, telebista gero eta altuago jarri behar dutela ondo entzuteko, elkarrizketa bat mantentzeko arreta berezia jarri behar dutela ez dutelako ondo entzuten belarri batetik edo bestetik eta behartzen ari dela horretarako... Egoera hauek ekiditeko lehenbailehen etortzea gomendatzen diogu jendeari. Prebentzioa da bultzatu nahi duguna". Entzumen arazoak dituztenen artean gehiengoa adineko jendea den arren, gazte eta haurrek ere izan ditzakete arazoak. Horrek, pertsona hori bere baitan ixtera eraman dezake eta besteekin komunikaziorako oztopo bilakatu. Bi zerbitzuak, bai ikusmenarena eta baita entzumenarena ere erabat doakoak dira, eta optika bertan eskaintzen dituzte. Audiometria froga egiteko aurrez ordua hartu behar da.

Aparatu pertsonalizatu eta osagarrien eskaintza

Behin frogak egin eta bezeroak arazoa badauka, dagokion aparatua prestatu behar zaio arazoa konpontzeko edota ez areagotzeko. Aparatua prest dagoenean, hau da, audifonoa, hilabetez probatzeko aukera izaten du bezeroak egokitzapenerako. Iraupen hori erabat doakoa da, egokitu ala ez. Bestelakoetan ere eskaintza zabala dago optikan: betaurreko normal eta eguzkitako graduatuak, lentillak, neurrira egindako tapoiak eta igerilekurako betaurreko graduatuak. Horrez gain, hainbat osagarri ere badago bezeroaren gustuak asetzeko: barometroak, prismatikoak, lupak, kronometroak...

Moda-modako betaurrekoak

Aurten ere, urtero bezala betaurrekoetan aukera oparoa dago. Beraien esanetan "Jendea, gero eta gehiago marka erostera etortzen da, komunikabideek eragin handia dute". Azken markak honako hauek dira: Channel, Dolce&Gabana, Bulgari, Versace, Arnette, Ray Ban, Nike, Prada, Gucci eta Roberto Cavali. Baina aurtengo moda-modako betaurrekoak handiak, briliantedunak dira.

Aipatzekoa da, getariarrek jubilatu txartelarekin %15eko deskontua dutela.

Optika ZARAUTZ
Getariako jubilatuei
%15eko deskontua
(karneta erakustea gomendatzen da)
Tel.: 943 834 401
Kale Nagusia, 12 · 20800 ZARAUTZ

Kristal progresibo zuriak + Eguzkitako kristal progresiboak
240 €